



EUSKAL HERRIKO 12 GAZTELU ETA DORRETXE

Iazko *Karmel* aldizkariko zenbaki bitan (*Karmel* 1997-1 eta 1997-3) Juan Mariren ekintza artistikoaren lan bi (*Urolako Trenbideko geltokiak* eta *Harriak...*) agertu ziren.

Aurtengo zenbaki honetan beste lan bat eskeintzen da: *Euskal Herriko 12 gaztelu eta dorretxe...* Askoitiar autodidakta artista honek lumatxozko lan-sail ugari egin ditu, eta hauren artean orain erakusten diren 12 gaztelu.







GEBARA JAURETXEA. BARRUNDIA (ARABA). Izen bereko gaztelua kokatzen den hegoaldeko mendi hegalean dago. Banderizen garaikoa, ganboarren aldekoena izan zen. Eraikina XIII. mendekoa edo XIV. mendearen hasierakoa da, baina lehen Karlistadan suntsitu zuten. Eraikinak oin angeluzena du eta lau alboetan dituen dorretzarrek patio bat inguratzen dute beren barnean. Harlangaitzezko eraikuntza izanik, angeluetan harlanduak ditu; leihoetan gezileihoak eta arku zuzeneko zein arku beheratuko zenbait leihate. Ate nagusiak arku zuzena eta arlanduzko dobelak ditu eta Gebaratarren armarriarekin errematatuta dago.




ARTEAGA GAZTELUA. GAUTEGIZ (BIZKAIA). Tradizioak dioenez, dorrea 914koa da. Gartzia de Noreña Gaitegizek sortu zuen eta Fortun Gartzia de Arteagak berreraiki zuen. Mugika Avendañostarrek, Arteagaren arerioek, eraitsi zuten 1468an eta Fortunen oinordekoak berreraiki zuen. XIX. mendean erreforma izugarria izan zuen Eugenia de Montijo Enperatriza, bertako jabearen aginduz. Honek Couvrechef arkitektoa bertara bidali zuen, antzinako dorretxearen gainean eta bertako elementu desberdinak erabiliz, gaur egungo dorre almenaduna eraiki zezan.




TORRE LUZEA. ZARAUTZ (GIPUZKOA). Herriko Kale Nagusiaren erdian kokaturik, Gipuzkoa mailan dorretxe eredurik onentzat bezala hartzen da. XV. mendean eraiki zen Zarautzaren familia ospetsuarentzat. Harlanduzkoa da eta hiru oin ditu. Behe-oinean guardia-gorputza zegoen. Azpimarratzekoak dira ataritxo-eskailera eta Gaztelako Enrike IV.aren armarría.




ERRIBERRIKO ERREGE JAUREGIA (NAFARROA). Europako gaztelu gotikoen artean bereziki garrantzitsua da. Karlos III.ak eraiki zuen 1406an. Bere ezaugarriek jauregi frantziarren antza ematen diote, Erdi Aroko gaztelu latz eta funtzionalen aldean. Independentziarako Gerran Espoz Minak su eman zion. Jakina denez, hamabost dorretzar izan zituen, bakoitzak bere izena izanik, eta kondairak dioenez, urteak hilabete bezainbeste arto. Gaur egungo egoera mendetan egindako berreraikuntzen ondorioa da eta, bereziki, Yarnoz arkitekto jaunak egindako berreraikuntza-lan bikainen emaitza.




VARONATARREN GAZTELUA. BILANANE (ARABA). Gaubea haranean kokatutako Varonatarren gaztelua almenez burututako dorrea, hobia eta barbakanak ditu eta artapen-egoera onean dago. 692. urtean Rui Perez almirante godoak gaztelua erakitzea agindu zuen eta Don Pelaioren egoitza izan zen Asturiasen koroatua izan aurretik.




LOIZAGA DORREA. GALDAMES (BIZKAIA). Ganboako Masuste gipuzkoarrak sortutako oinetxea. Haren oinordekoek, hirugarren belaunaldian, Loizaga abizena hartu zuten. Otxoa Gartzia de Loizaga izan zen dorre gotorarren eraikitzailea. XVII. mendean dorrea Murga etxcaren jabetzara igaro zen, geroago, behin-betiko Loizagatarren esku geratuz. Horregatik ikus daitezke dorrean Loizaga eta Murgaren armak. Harri gabarozko gaur egungo dorre eraberrituak tximista batek erretako jatorrizkoa ezkututzen du. Hesizat erabilitako jatorrizko hormaren arrastoak ikus daitezke.




ENPARAN DORRETXE. AZPEITIA (GIPUZKOA). Enparan dorrea 1320an eraiki zen ibaiaren ibi tradizionalerako baten gaineko kontrolgune gisa. Bertako lehenengo jabeak oñaztarren aldekoak ziren. Gizartean zuten nagusitasuna zela-eta, bertako kideek Loiolako leinuaren aurka egin zuten. 1457an, ondorioak jasan zituen eta horrenbestez, lehen solairuraino moztu zen. 1760an alboko gorputzak gehitu zitzaizkion eta balkoi zabal jarraitua ireki zitzaion.




XABIERKO GAZTELUA. ZANGOZA (NAFARROA). Gaztelua-
ren jatorria X. eta XI. mendeetan dago. Garai hartan talaiia edo
dorre isolatua zen, babesleku baino gehiago, behatoki gisa
sortua. Erdi Aroan jatorrizko dorrearen inguruan babeserako
gune desberdinak eraiki zituzten. Dorre poligonala XV. men-
dean gehitu zitzaion. 1516an, Cisneros Kardinalaren aginduz,
kanpoko hormak eraitsi, dorreak moztu, hobiak itsutu eta ma-
takanak eta gezileihoak baliogabetu ziren. 1952an zaharberri-
kuntza-obra garrantzitsuak egin ziren eta gazteluari galdutako
gerra-fisionomia itzuli zitzaion.




INFANTERRIAREN DORREA. MENDOZA (ARABA). Oñaztarren aldean ziren Mendozatarren oinetxea, oraindik ere urkalekua gordetzen duen eraikuntza ederra, sendoa eta tinkoa da. XIII. mendetik XIV.era bitartean inguruko altuerakoak, apaindurarik gabe jasota daude eta gezileihoz zulatuta. Sarrerako ateak arku zorrotz bat du eta hormen aldeetan lau dorretzar daude.



BUTROEKO GAZTELUA. GATIKA (BIZKAIA) Butroeko leinuaren jauretxea izan zenaren kokalekuaren gainean eraikitako gaztelu modernoa da. Cubaseko Markesak eraiki zuen XIX. mendearen amaieran, Torrecillako Markesa, eraikuntza finantzatu zuen Butroeren oinordekoaren ekimenez. Gaztelu honek ez du antzina dorretxea izan zenarekin inolako erlaziorik, izen bereko banderiza oldarkorren babeslekua izan baitzen. Aitzitik, etxe erromantikoa da, forma gotiko, nordiko eta fantastikotan inspiratua.



SAN TELMO GAZTELUA. HONDARRABIA. (GIPUZKOA). Piraten Gaztelua ere baderitzo eta Hondarribiko babeslekurik zaharrena da. 1598an eraiki zen Erregearen aginduz Asturiagako portua eta Bidasoaren sarrera kortsarioen erasoen aurka defendatzeko. Horretarako, kanoiak eta behar bezalako hornidurak zituen. Tenplarioena izan zen. Geroago abandonatu zuten.



DONAMARIAKO JAUREGI ZAHARRA (NAFARROA). XIV. eta XV. mendearte herrialdean ohiko izan zen zurezko egitura kontserbatzen duenatariko bat da. Dorretxe honek oin angeluzuzena du. Hartzko egituraren gainean zurezko beste bat du, urkatokia, alegia, zurezko gotorleku edo bastioia. Antzina horiak, behealdean, oso gezileiho luzatu eta estuz irekita zeuden eta goialdean hainbat leiho txikiz.

Juan M^o Arrizabalaga